



Trantsizio energetikoaren
alderdiak kudeatzeko modu
juridiko berria da



ENERGIA KOMUNITATEA izaera juridikodun entitatea da.
Ingurune hurbileko **pertsona** eta **erakundeak, publikoak** zein
pribatuak elkartuaz, **energia sektorearekin zerikusia duen**
jarduera batean lankidetzan aritzeko asmoaz, **bertako kideei**
edo tokiko komunitateari zerbitzuak edo bestelako **onura**
sozioekonomiko eta ingurumenekoak emateko.

HELBURUA
ESKAINTZA
NORK

ZER DA ENERGIA KOMUNITATEA (EBK)?



ENERGIA KOMUNITATEAK

BEREZITASUNAK

HURBILTASUNA

- Tokiko baliabideak, tokiko komunitatearentzat.
- Proiektura begira \neq autokontsumo partekatua 500/2.000m.
- Despopulazioari aurre egiteko aukera.

BURUJABETZA

- Pertsonen ahalduntzea
- Kontsumo jasangarri eta efizientzia
- Fakturen aurrezpena


FORMA JURIDIKO DEMOKRATIKOA

- Irabazi asmorik gabeko elkarteak eta kooperatibak.
- Parte hartze anitza eta demokratikoa.
- Kontrol eraginkorra, interes ekonomikoak dituzten agenteen mendekotasunik gabe.

INKLUSIBOA

- Pertsona zaugarrien defentsa.
- Eragile aktiboak, aukeren sortzaileak.
- Lehendik dauden instalazioen aprobetxamendua.

EBK SORTZEKO GOIENERREN PROPOSAMENA



Udala



Herritarrak



Enpresak



Sostengu taldea



Talde sustatzailea



Lantaldeak



EBK

Jaso/sakondu beharreko edukiak

#	Pilulak	Helburua
1	Eratze prozesuaren faseak	Energia Komunitatea eratzeko prozesuaren faseak ezagutzea
2	Energia sorkuntza eta Autokontsumoa	Hauen nondik norakoak ulertu.
3	Lantaldeen egituraketa	Lantaldeka banatu eta egin beharrekoak zehaztu.
4	Izaera juridiko eta soziala	Komunitatearen izateko arrazoi egonkorrak garatu: nortzuk gara, nora goaz, zein balioekin...
5	Eraketarako bide orria	Lantalde bakoitzen egin beharrekoak kontuan izanda, plan bat egitea
6	Bideragarritasuna eta finantzazioa	Aukeratutako proiektuaren finantzazio aukerak ezagutu eta bideragarritasuna aztertzea
7	Bestelako proiektuetan sakontzea	Bestelako proiekturik egin nahi bada, horren nondik norakoak eta bideragarritasuna aztertzea
8	Komunitatearen biziraupena	Energia Komunitatea eratu ostean egin beharrekoak zeintzuk diren ezagutzea eta horri nola egingo zaion aurre hausnartzea

ZEIN AUKERA **ESKAINTZEN** DITU EBK BATEK?

FOTOVOLTAIKOA

- Energia sorkuntzarako aukera
- Eredu indibidualetik – kolektibora (500-2.000m)
- Espazio publikoen erabilera kolektiboa
- **Sarera:** Komunitatearen prezioen egonkortasuna.

HIDROELEKTRIKOA:

- Instalazioak berreskuratu.
- Bizilagunak hornitzeko aukerak, autokontsumoaren edo PPA.

TERMIKOA:

- Bero-sare kolektiboak.
- Erregaiaren erosketak kolektiboak.
- Talde moduan ekipoak jartzea.

MUGIKORTASUN JASANGARRIA:

- Auto elektrikoak haratago.
- Instalazio kolektiboak.
- Kotxe partekatutakoak

AHOLKULARITZA ETA FORMAKUNTZA:

- Birgaitze energetikoa.
- Eraginkortasun energetikoa.
- Aholkularitza energetikoa.
- Pobrezia Energetikoa.
- Proiektu eta beharren identifikazioa.






Ezagutzen duzue EBK-rik?



Lagundu ditugun eta laguntzen ari garen EBK-k



Enherkom (Hernani) - Piztu (Zumaia) - Leitzeko EBK - Ekiherri (Errenteria) - Ixotzen (Elgeta) - Argiñola (Elorrio) - Berener (Bergara) - Argitturri (Oiartzun) - Ekimen (Uhartea) - Ostots (Araitz) - Bixtubera (Bera) - Sortalde (Usurbil) - Leargi (Lea Ibarra) - Argitturri (Oiartzun) - Oreka (Otxandio) - Hitzar (Itsasondo) - IKE (Igeldo)

Zertan dabilta



Kronika: «Fakturan gorakada haundiak izan dira eta energia bulegoan asko jaitsi dezakegu gastua»



Abian dago Orduener, Urduña zein Arrastarian komunitate energetikoak sortzeko helburua duen egitasmoa.



ACCE: Energia-komunitateentzat finantzaketa-aukera hobeak sortzen

2023-07-04



Ixotzen-ek martxan du bazkidetzakanpaina

2024-03-04



Las principales dudas son sobre las facturas energéticas.

Hernaniko Energia Bulegoa: Gehienek ez dituzte ulertzen etxeetako argindar eta gas fakturak



Zubipeko instalazio fotovoltaikotik energia jasotzen hasi dira Hernaniko 87 etxebizitza



Energia kontsumoarekiko kontzientzia
Conciencia sobre el consumo de energía


Eraginkostasun energetikoa
Eficiencia energética

Aurrezpena eta konpentsazioa
Ahorro y compensación en factura

CO2-aren isuria gutxitu
Reducir las emisiones de CO2

AUTOKONTSUMOIA

EREDU PARTEKATUA [Eraikin ezberdinak]



Kontsumitzaile baten barne sarera konektaturiko autokontsumo partekatua:

- $P \leq 100\text{kW}$ -ko konpentsazio muga
- Kontsumitzaileak \square 500/2.000m-ko erradioan
- Banaketa irizpideen akordioa (β):

Adib: $\beta 1 = 0,50$ (%50)

$\beta 2 = 0,25$ (%25)

$\beta 3 = 0,25$ (%25)

Ordukako koefiziente estatikoen esperoan (8760 datu)
Etorkizunean koefiziente dinamikoak \square malgutasuna

- Konpentsazio akordioa: merkaturatzailearekin

EBK martxan jartzeko ibilbidea

Instituzio publikoen papera



- Erakundeen eta langileen **MESFIDANTZA** saihestea.
- Jardunbide egokien gidak egitea. **INTERES OROKORRAREN** babesa eta kontserbazioa.
- **UDAL MAILAKO BALIABIDEAK AKTIBATZEA**: udal titulartasuneko estalki eta espazioak lagatzea, teknikarien inplikazioa, bilerak egiteko eta komunitatea eratzeko baliabideak, sustatutako proiektuetarako edo EBKekin elkarlanean aritzeko espazioak erreserbatzea.
- **ENERGIAREN BULEGOA** bezalako energia-zerbitzu iraunkorra gaitzea.
- Eraginkortasun energetikoa, energia berriztagarriak eta mugikortasun jasangarria hobetzeko **POLITIKA FISKALA** berrikustea.
- Udalaren ohiko **HEDAPEN BIDEAK** erabiltzea eredu hau udalerrian zabaltzeko.
- EBKk autonomia eraginkorra lortzen duen bitartean, **BIDERATZAILE** gisa jardun dezake.

HAMAR ARRAZOI EBK BAT SORTZEKO

1. Energia **oinarrizko ondasuna** delako.
2. Energia berriztagarrien sorkuntza bultzatzeak **energiaren aldetik independenteagoak egiten gaitu.**
3. **Herritarren ahalduntzea** (kontsumitzailetik prosumidorera). Pertsonak dira instalazioen jabeak.
4. **Pertsonak erdian kokatzea**, gauzak egiteko beste modu batzuk daudela frogatuz.
5. **Klima-aldaketa** arintzeko tresna dira.
6. Energia **kontziente eta arduratsuago** batetik kontsumitzen du.
7. **Tokiko baliabideak** aprobetxatzea.
8. **Energia-pobreziari** aurre egiteko ekimenak.
9. Proiektu kolektiboetan **gizartearen parte-hartzea** sustatzea.
10. Guztion artean egindako proiektuak, **gure beharrei erantzuten** dietenak.

ENERGIA KOMUNITATEAK ESKAINTZEN DITUZTEN AUKERAK

- Energia berriztagarriko **tokiko baliabideak** eta energiarekin lotutako beste zerbitzu batzuk eskuratzea
- **Pobrezia energetikoari** aurre egitea.
- Nork bere energia beharren auto hornikuntzaren **kontrola eta erantzukizuna** hartzea, energia demokrazia sustatuz.
- Herritarrentzako eta enpresentzako **inbertsioa tokiko aktiboetan**, kide izatearen sentimendua eta 'zaintza'.
- **Tokiko ekonomian** iraungo duten diru-sarrerak sortzea, komunitatearen behar sozioekonomikoei aurre egiteko. **Berrinbertitu.**
- Energia Berriztagarrien **onarpen** publikoa **handitzea.**
- Tokiko komunitateen **gizarte-kohesioa eta erresilientzia areagotzea**, elkarrekin eraikitzeko eta zaintzeko asmoa baitute.
- **Despopulazioa** saihesteko aukera.
- **Landa-hiri lotura** zuzenak eta sendoak ezartzea.
- Lehendik dauden sareak eta **sektore anitzeko sare berriak** indartzea.
- **Publiko-udal** arloari buruzko pertzepzio hobea.

DIRULAGUNTZAK

- ✓ **EEE (Euskal Autonomia Erkidegoaren energia agentzia):** Autokontsumoari eta biltegitratzeari lotutako pizgarrien programa, energia berriztagarrien iturriekin, eta etxebizitzaren sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari buruzkoa (amaiera eguna: 2023/12/31).

<https://www.eve.eus/Programa-de-ayudas/2020/Programa-de-incentivos-ligados-al-autoconsumo-y-al.aspx>

- ✓ **MITECO (Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa):** 100 milioi euro, energia-komunitate bat sortzeko fase guztiak diruz laguntzeko (CE Aprende, CE Planfica eta CE Implática).

- ✓ **Foru Aldundien dirulaguntzak**

- ✓ **Udaletxe bakoitzak baldintza desberdinak**

- Deskontua obra baimenean
- IBI-an deskontua
- Etb.

POBREZIA ENERGETIKO

Energia... zertarako?

«Berokuntza, hozketa, argiztapen eta elektrizitate hornidura egokiak ezinbestekoak dira bizi maila duin bat eta herritarren osasuna nahiz ongizatea bermatzeko»

Europako Energia Pobreziaren Behatokia, 2018
(www.energypoverty.eu)

Pobrezia energetikoa

Zer da?

“Oinarrizkoak, eskuragarriak, ziurrak eta beharrezkoak diren zerbitzu energetiko seguruen falta”

IZAERA JURIDIKOA

ELKARTEA VS KOOP, LABUR-LABUR

- Boto eskubidea eta gehiengoak definituta daude kooperatibetan, elkarteetan ez.
- Kapital soziala: Gizarte-kapitalari dagokionez, aldeak nabarmenak dira hemen. Kooperatiban ekarpen itzulgarriak (derrigorrezkoak eta borondatezkoak) eta kuotak daude, eta elkartean kuota ez-itzulgarriak bakarrik.
- Koop: bazkide moten arabera **eskubide ezberdinak** aitortzeko aukera ematen du.
- Garrantzitsua da kapital sozialaren lanketa zehatza, erakundeak jarduera ekonomikoa eta kapitalaren araberako eskubideak izango dituelako. Konpentsazioak kalkulatzeko borondatezko ekarpenak kontuan izan ditzakegu. Elkarteetan jarritako dirua ez da itzultzen.
- Bazkide motak, bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak, eta erabakitze eskubideak zehaztea garrantzitsua da. Enpresa handiak bazkidetzea bideratu dezakegu, baina beti ere figura jakin batzuekin.

ENERGIA KOMUNITATEAK


PARTEHARTZEA ETA BOTEREAREN BANAKETA




	KONTSEILU ERREKTOREAREN OSAERA						BATZAR OROKORRA	€/APORTAZIOA
	PERTSONA FISIKOAK	ENPRESA TXIKIAK	ERAKUNDE PUBLIKOA	BIZILAGUNEN KOMUNITATEAK	ELKARTEAK	GUZTIRA		
KONTSUMITZAILEAK	X	X		X	X	(6-8)	60%	10,00 €
LANGILEAK	X					(1-2)	10%	10,00 €
ZERBITZU EMALEAK	X	X			X	(1-2)	10%	10,00 €
KOLABORATZAILEAK		X	X		X	(1-2)	10%	1.000,00 €
"INBERTITZAILEAK"	X	X	X	X	X	1	10%	100,00 €
GUZTIRA						(10-15)	100%	

2.1 EBK martxan jartzeko ibilbidea

ESKEMA OPERATIBOA




2.1 EBK martxan jartzeko ibilbidea



ESKEMA FINANTZIEROA

LANTALDEEN EGITURAKETA

EBKren EGITURAKETA



LANTALDEAK

Komunitatea eta komunikazioa	Energia-proiektuak	Juridiko-administratiboa
<p>Komunitatearen <u>zaintzaz</u> eta harreman-sareak <u>zabaltzeaz</u> arduratuko den lantaldea izango da. Bertan zehaztuko dira komunitatearen funtzionamendua, harreman-sareak etengabe zabaltzen joateko bideak eta komunikazio-estrategia.</p>	<p><u>Proiektu desberdinak proposatu</u> eta horien <u>bideragarritasuna aztertzea</u> izango da lantalde honen egiteko nagusia. Bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa, urgentzia eta eragin dezakeen ingurumen- inpaktua, zein inpaktu soziala izango dira, gutxienez, kontuan izan beharreko alderdiak. Ez dago metodologia bakar bat inpaktu-mota guztiak neurtzen dituen, kasuan kasu egokiena bilatu beharko da, baina, zehazki, inpaktu soziala aurreikusteko, baliagarria izango zaigu balioen markoa eraikita izatea.</p>	<p>Lantalde hau <u>kooperatibaren eraketan</u> landu beharreko alderdiez arduratuko da. Kooperatibaren estatutuak landu beharko dira eta bertan jasoko diren organo, bazkide-mota eta finantzazio-iturrien inguruko gogoetak egin. Horrek guztiak definituko du komunitatearen gobernantza-eredua bera. Komunitatearen bideragarritasun ekonomikoa ere landu beharko du, denboran zehar iraun dezan.</p>

Komunitatea eta komunikazioa

Kanpo-harremanak	Komunikabideekin: aldizkari, irradi...
	Herriko/auzoko/eskualdeko eragile ezberdinekin: elkarteak, batzordeak...
	Beste EBKkin harremanak
Irudia	Logoa, izena
	Sare sozialen sorrera eta kudeaketa
Marketing komunitarioa	Komunikazio-estrategia, EBKren sozializazioa (bideo, aurkezpen, lehiaketa, jardunaldi...)
Barne-dinamikak, zaintza	Dinamizazio-moderazioa kudeatu (arduradunak izendatu)
	Eskaletak (gai-zerrenda)-aktak
	Barne komunikazio kanalak sortu eta jarraipena egin

Proiektuak

Sentsibilizazio eta aholkularitza proiektuak <i>(Komunikazio lantaldearekin banatu)</i>	Nori zuzendu Diseinatu
Energia-Sorkuntza proiektuak Efizientzia proiektuak	Proiektuaren definizioa (eta bideragarritasun tekniko ekonomikoa) Instalazioa Espazioen egokitasuna Kontsumoen azterketa Dimentsioak Sorkuntza ahalmena
	Hornitzaileekin kontaktua
Proiektuen finantziazio eredua	Diru-laguntzak kudeatu
	Autokontsumo koefizienteen banaketa-eredua

Juridiko-administratiboa

Eraketa prozesua	Estatutuak sortu, eguneratu: bazkide-motak, finantzazio-iturriak...
	Komunitatea onartua izateko pausoak osatu
Barne-araudia	Antolaketa, kontratazioak, altak eta bajak
Negozio eredua	Kooperatiba osoaren bideragarritasuna bermatu: kuotak, kapitalaren kudeaketa, itzulpenak...
Administrazioa Dokumentazioa	Ordainketak bideratu/zehaztu
	Kontabilitatearen jarraipena

ENERGIA KOMUNITATEAK IBILBIDEA



OIARTZUNGO
UDALA



ziortza - bolibar



Elgetako udala



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Leitzako
Udala



orexa
Bidea hemen hasten da



Errenteriako Udala



GETARIAKO UDALA



USURBIL
udala



Otxandio
bizigurez betie



ITSASONDOKO
UDALA



D2030
Garapen
Iraunkorrerako
Sarea

Badakigu:

- Kooperatibak **sortzen**
- Energia proiektuak **garatzen**
- Parte-hartze prozesuak **lantzen**



Elorriko udala



EA Udala



ZESTOAKO
Udala



Bergarako
Udala

Gertu gaude, gertukoak gara



📍 ORDIZIA. BULEGOA: Mallutz 18 behea. 20240. Tel. 943 088 444.

📍 GASTEIZ. BULEGOA: Abendaño kalea 18. Tel. 945 157 444.

📍 BILBO. BULEGOA: Itxaropena kalea 12.aren aurrean. Tel. 946 277 701.

📍 DONOSTIA. BULEGOA: Errege Katolikoena kalea 11. Tel. 943 946 020.

📍 IRUÑEA. BULEGOA: Kale Berria 111. Tel. 948 504 135.

📍 BERA. INFOGUNEA: San Esteban karrika 11. Tfn. 948 630 384.

ETORKIZUNeko ENERGIA SORTZEN



Mila esker
www.goiener.eus